



CARITAS GIPUZKOA: 60 años sembrando lo recogido

FUNDAMENTACIÓN

La celebración de los 60 años de Caritas Gipuzkoa es, ante todo, un momento de agradecimiento. Es hacer memoria de un camino compartido en el que miles de personas voluntarias, socias, donantes y trabajadoras, con su compromiso desinteresado, su gratuidad y su profunda humanidad, han hecho posible acompañar el sufrimiento, la fragilidad y la esperanza de tantas personas en situación de vulnerabilidad y exclusión social. Su entrega cotidiana ha sido, y sigue siendo, el corazón de Caritas: una presencia cercana que escucha, acoge, acompaña y dignifica.

Este aniversario es también un reconocimiento a las comunidades cristianas que han sostenido esta misión a lo largo del tiempo. Desde la vivencia del amor y la fe, han impulsado una acción que no solo responde a necesidades materiales, sino que busca poner en el centro la dignidad de cada persona. Caritas nace y se construye desde el Evangelio, como expresión concreta de una Iglesia comprometida con la justicia, la solidaridad y el cuidado de quienes más lo necesitan. El amor —Caritas— es una fuerza extraordinaria que impulsa a las personas a comprometerse con valentía y generosidad en la justicia y en la paz (CIV 1).

De todo ello nace el lema elegido para este aniversario: *Caritas Gipuzkoa, 60 años sembrando lo recogido*. Porque nuestro empeño en este tiempo ha sido recoger toda esa entrega y esa generosidad para sembrar esperanza y un futuro compartido, acompañando a las personas más desfavorecidas de nuestra sociedad para que puedan construir su proyecto de vida.

Y esa esperanza no se improvisa ni se vive en solitario: “se necesita una comunidad que nos sostenga, que nos ayude y en la que nos ayudemos unos a otros a mirar hacia delante. [...] Los sueños se construyen juntos” (FT 8).

No ha sido, sin embargo, un camino sencillo. En estas seis décadas, Caritas Gipuzkoa ha sabido leer los signos de cada tiempo, adaptándose a las transformaciones sociales y a las nuevas realidades de exclusión. Desde las primeras respuestas a situaciones de pobreza más visibles hasta los desafíos actuales, marcados por la complejidad social, las migraciones, la soledad, la precariedad o la desigualdad.

Hemos vivido y afrontado crisis de distinta índole: una pandemia sanitaria, crisis migratorias —tanto internas como externas—, crisis económicas e industriales, problemas de acceso a la vivienda, entre otras. Frente a todo ello, Caritas ha permanecido fiel a su misión: estar al lado de las personas, especialmente de aquellas que viven en los márgenes y en las fronteras.

Las dificultades y los cambios no han debilitado nuestro compromiso; al contrario, han fortalecido la identidad de Caritas, que ha sido capaz de renovarse sin perder su esencia, consolidándose como una red de solidaridad que busca dar respuesta a las necesidades sociales de cada momento y denunciar las causas que generan situaciones de injusticia, con el objetivo de transformarlas.



jasotakoa ekintza bihurtuz
sembrando lo recogido



Mirar al futuro en este contexto es renovar la esperanza y el compromiso. Es reconocer que los retos continúan y que será necesario seguir construyendo comunidad, tejiendo alianzas y promoviendo una sociedad más justa, inclusiva y fraterna. Caritas quiere seguir siendo signo de esperanza, espacio de encuentro y herramienta de transformación social, sabiendo que “desear el bien común y esforzarse por él es exigencia de justicia” (CIV 7).

Aprovechamos también este aniversario para dar las gracias a todas las personas que han recorrido algún tramo del camino a nuestro lado: voluntariado, profesionales, comunidades parroquiales, donantes y todas aquellas manos anónimas que han hecho posible este camino de compromiso y esperanza. Todas, sin excepción, han dejado su huella.

Y, de manera especial, queremos recordar a cada una de las personas a las que hemos acompañado en estos 60 años. Sus vidas, sus historias, sus dificultades y sus anhelos nos han mantenido cerca de la realidad y han dado sentido a nuestra misión.

Guztiori, eskerrik asko.



CARITAS GIPUZKOA: 60 urte jasotakoa ekintza bihurtuz

FUNDAMENTAZIOA

Caritas Gipuzkoaren 60. urteurrenaren ospakizuna, batez ere, eskerrak emateko unea da. Partekatutako ibilbide baten memoria egiteko aukera da, non milaka boluntario, bazkide, emaile eta langileen konpromiso desinteresatu, doakotasuna eta gizatasun sakonak zaurgarritasun eta gizarte-bazterketa egoeran dauden hainbeste pertsonaren sufrimendua, ahultasuna eta itxaropena laguntzea ahalbidetu duten. Eguneroko eskuzabaltasun hori izan da, eta izaten jarraitzen du, Caritasen bihotza: entzuten, harrera egiten, bidelagun izaten eta duintzen duen presentzia hurbila.

Urteurren hau, halaber, gure misioa denboran zehar eutsi duten kristau komunitateei aitortza da. Maitasunaren eta fedearen bizipenetik abiatuta, behar materialei erantzuteaz harago doan ekintza bultzatu dute, pertsona bakoitzaren duintasuna erdigunean jarriz. Caritas Ebanjelioan oinarrituta sortu eta eraikitzen da, justiziarekin, elkartasunarekin eta gehien behar dutenen zaintzarekin konprometitutako Elizaren adierazpen zehatz gisa. Maitasuna —Caritas— indar aparta da, pertsonak ausardiaz eta eskuzabaltasunez justiziaren eta bakearen alde konprometizera bultzatzen dituen (CIV 1).

Ibilbide horretatik sortu da urteurren honetarako aukeratutako lema: **Caritas Gipuzkoa, 60 urte jasotakoa ekintza bihurtuz**. Denbora honetan guztian, jasotako konpromisoa eta eskuzabaltasuna bildu eta itxaropena ereitea izan delako gure ahalegina, gure gizarteko pertsona zaurgarrienei bidelagun izanez, beren bizi-proiektua eraikitzeko aukera izan dezaten.

Eta itxaropen hori ez da bat-batean sortzen, ezta bakarka bizi ere: “komunitate bat behar dugu, elkarri eusteko, laguntzeko eta aurrera begiratzeko laguntza izateko. [...] Ametsak elkarrekin eraikitzen dira” (FT 8).

Hala ere, bidea ez da erraza izan. Sei hamarkada hauetan, Caritas Gipuzkoak une bakoitzeko zeinuak irakurtzen jakin du, gizarte-aldaketetara eta bazterketaren errealitate berrietara egokituz. Hasierako pobrezia agerikoenei emandako erantzunetatik gaur egungo erronketara, non konplexutasun soziala, migrazioak, bakardadea, prekarietatea edo desberdintasuna nagusi diren.

Askotariko krisiak bizi eta aurre egin behar izan ditugu: osasun-pandemia bat, migrazio-krisiak —barnekoak zein kanpokoak—, krisi ekonomiko eta industrialak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, besteak beste. Horren guztiaren aurrean, Caritas bere misioari leial izan zaio: pertsonen ondoan egotea, bereziki bazterretan eta mugetan bizi direnen ondoan.



jasotakoa ekintza bihurtuz
sembrando lo recogido



Zailtasunek eta aldaketek ez dute gure konpromisoa ahuldu; aitzitik, Caritasen nortasuna indartu dute. Bere oinarria galdu gabe berritzeko gai izan da, une bakoitzeko gizarte-beharrei erantzuna emateko eta bidegabekeria sortzen duten arrazoiak salatzeko, haiek eraldatzeko helburuz, elkartasun-sare sendo gisa sendotuz.

Etorkizunari begiratzea, testuinguru honetan, itxaropena eta konpromisoa berritzea da. Erronkek jarraitzen dutela aitortzea da, eta komunitatea eraikitzen, aliantzak ehuntzen eta gizarte bidezkoago, inklusiboago eta senidetazkoago baten alde lanean jarraitzea beharrezkoa izango dela onartzea. Caritasek itxaropenaren seinale, topagune eta gizarte-eraldaketarako tresna izaten jarraitu nahi du, jakinda “justiziak ongizate komuna nahi izatea eta horren alde ahalegintzea eskatzen duela” (CIV 7).

Urteurren hau baliatu nahi dugu, halaber, gurekin bidearen zatiren bat partekatu duten pertsona guztiei eskerrak emateko: boluntarioei, profesionaleri, parrokia-komunitateei, emaleei eta konpromiso eta itxaropen bide hau posible egin duten esku anonimo guztiei. Guztiek, salbuespenik gabe, bere arrastoa utzi dute.

Eta, bereziki, azken 60 urteotan bidelagun izan ditugun pertsona guztiak gogoratu nahi ditugu. Haien bizitzek, istorioek, zailtasunek eta nahiek errealitateari lotuta mantendu gaituzte eta gure misioari zentzua eman diote.

Guztiori, eskerrik asko.